

SENTITU, IKASI ALA...UKITU?

Pirinioan, lehenengo ukimena, arropa modukoa zen, bai, arropa zen. Oroitzen naiz oso azkar mugitzen ari nintzela, leku guztietan, modu desberdinetan. Telak desberdinak ziren. Nekatuta nengoen orduan, lo egitera joan nintzen. Esnatu bezain laster, pisu asko hartu, maleta zen eta gerrikoa jarri nuen orduan autobusean nengoela deduzitu nuen. Dendora pasa ahala, gerrikoa berriz kendu eta bat-batean boligrafo moduko makil txiki bat neukan. Oso azkar mugitzen ari nintzen. Gizarten nengoen, idazten.

Gero, pisu asko hartu nuen berriz, nola ez, maleta zen. Kotxera joaten ginen. Kotxean, bakarrik nire hatz lodiak mugitzen ari ziren, joku batera jolasten, jakina. Bi ordu pasa ondoren, berriz pisu asko hartu nuen, aireportuan geundelako. Bat-batean, pisua utzi, kremailera bat ireki, txartel bat atera eta beste esku batera eman, NAN zen. Ondoren, berriz gerriko bat ezarri baina ez zen kotxe edo autobus baten modukoa, desberdina zen, hegazkinean geunden! Ni dardarka hasi nintzen eta ere bai beste eskuetan, eutsita nengoen. Sentsazio hori pasa ahala eta ordu asko ere bai, iritsi ginen.

Esnatu ondoren, bustita zegoen gauza bat neukan. Sagarra zen. Ni gora eta behera mugitzen ari nintzen ahoraren norabidean. Sagar hori jan ondoren, bustitzen ari nintzen eta hotz asko pasatzen ari nintzen bitartean, nire ustez, Free Tour batean geunden, mutil bat asko hitz egiten ari zelako. Mutil horrek asko hitz egiten zuen baina asko ikasten eta begiak gauza asko ikusten ari ziren adibidez: Branderburgo atea, Alexander Platz, Museo batzuk... Baina oraindik oso bustia eta hotz handia neukan. Azkenean, beroa sentitu nuen eta janaria ukitzen eta ahoaren norabidean mugitzen nintzen.

Beste egun bat zen, kanpoan geunden baina hotza ez neukan, kontzentrazio esparruan geunden. Harri asko ukitzen ari nintzen. Gauean, zerbaiten kontra estutzen ari nintzen eta kili-kiliak egiten ari nintzen Afrikari.

Azken aurreko eguna zen. Berriz janaria ukitzen ari nintzen. Gero, gauza bat hartu nuen, pisu txikia zeukan. Nire mugikorra zen eta belarrien norabidean joan nintzen eta hor denbora asko gelditu nintzen belarriak audio asko entzuten ari ziren. Museo batean geunden.

Azken egun osoan, goizean beroa sentitu nuen. Estadio Olinpikoa ikusi zuten, goiz osoan. Berriz nola ez, hotz handia sentitzen ari nintzen, oinak oso nekatuta zeuden, asko ibiltzen ari ginen. Gauean afaldu ondoren, indar asko egiten ari nintzen beste esku baten kontra, pulso bat egiten ari nintzen, bueno pulso bat baino gehiago. Pulsoak egin ondoren, zorabiatzen hasi nintzen, beste modu batean esanda, dantzatzen ari nintzen.

Azken eguna, bakarrik buelta zen eta berriz sentitu nuen bakarra gerrikoa jarri nuela zen.

